



KARLOS III.a

1425 - 2025




Charles R

2025ean, 1387 eta 1425 artean Nafarroako errege izandako Karlos III.aren heriotzaren VI. mendeurrena betetzen da. Efemeride hau aukera bikaina da errege honek Nafarroako historian izan zuen eraginari buruz hausnartzeko, bai eta Nafarroako erresumaren sendotzean betetako eginkizun erabakigarria gogoratzeko eta aztertzeko ere.


Karlos III.a Noblea nafar iruditeria historikoaren pertsona garrantzitsuenetako bat da, baita ezagunenetako bat ere, gure erkidegoaren barruko eta kanpoko herri mailan zein kultura eta zientzia arloan.

Haren ospea bere garrantzi historikoaren froga da. Horregatik, Karlos III.a “Noblea” memoriak bihurtu duen subirano baten “begirune ona” babesten duten zenbait alderditan arreta jartzea komeni da.






Karlos III.a “gobernu ona” deiturikoaren nozioei biziki lotutako erregea izan zen. Bere garaian, Europako erresuma guztiak hobekuntza-prozesuetan murgilduta zeuden; esaterako, antzinako sistemen berrikuspenean, baliabideak lortzeko modu berrietan, kudeaketaren erantzukizunaren ideian, zerbitzuarenean eta “publikoaren” kontzeptuan. Horrek guztiak erreforma garrantzitsuak egitera bultzatu zuen, hala nola hiribilduetan eta hirietan sortutako gatazkak konpontzen saiatzera, bere etxearen kudeaketa berrantolatzea, diru-iturri berriak sortzera... eta baita bere pertsonaren eta memoriaren irudi publikoa kontu handiz eraikitzea ere. Hari zor diogu, hain zuzen ere, “errege noblearen” ideia.





Karlos III.ak bere bizitzan izandako harreman pertsonal eta familiar ireki eta kaskotarikoei esker, nazioarteko proiektuiko monarka izan zen. Eremu publikoan zein pribatuan hedatu zenez, Nafarroako erresuma Behe Erdi Aroaren amaierako Europako mapa politiko eta soziokultural dinamikoan kokatu ahal izan zen.


Europako testuinguru kultural horretan, erregea arteen eta arkitekturaren mezenas handi bihurtu zen, Nafarroako ondarearen bitxietako batzuen egitea sustatuz.





Karlos III.aren erregealdiak bake eta oparotasun erlatiboko garaia ekarri zuenez, funtsezkoa izan zen Nafarroako gizartea eratzeko eta baita erresuma modernizatzeko oinarriak ezartzeko ere. Landa eta hiria, tentsioan zeuden noblezia-leinuak, klerezia zabala eta gutxiengo erlijioso ugari, landa-bizitza, artisau-sektoreak, salgaien joan-etorria eta merkataritza-jarduera... biltzen zituen Nafarroako gizarte konplexu eta aldakor baten erronkei aurre egin zien.

Karlos III.ak arreta berezia eskaini zion hiri-eremuari, erresumako herri nagusien bizitza eraldatu zuten neurriekin batera. Tuterari hiri titulua eman zion (1390), Donibane Garaziko salgaien trafikoa muga-zerga batekin arautu zuen (1393), Zangozari urteroko azoka egiteko pribilegioa eman zion (1399), Erriberrirako merindade bat sortu zuen (1407), Lizarrako udal gobernu berrantolatu zuen (1407) eta erresumako hiriburua birsortu zuen Iruñeko Batasunaren Pribilegioa emanda (1423).






Karlos III.ak lotura garrantzitsuak izan zituen penintsulako beste erresuma batzuekin, zeinekin bere erregealdia markatu zituzten harreman diplomatiko eta ezkontza-harreman erabakigarriak ezarri baitzituen. Frantzian errotutako bere familia-interesak Gaztela eta Aragoira hedatu ziren bereziki Leonor Trastamarakoarekin izandako ezkontzari esker. Arrebaz, izebez eta Blanka izeneko oinordeko batez inguratuta, guztiek funtsezko zeregina izan zuten erregearen aliantza-sareetan; legez kanpoko familia zabal baten rola, bere ahaide boteretsuen eragina eta mugitu eta jardun zen espazioak ahaztu gabe.





Horrek guztiak nazioarteko taularen protagonista bihurtu zuen Karlos III.a eta Nafarroa Europaren proiektzio eta eragin handi batera zabaldu zuen, erresumaren harreman familiar, diplomatiko, ekonomiko, sozial eta kulturaletan isla izanda.

Horrela, erregeak eta erresumak penintsulako inguruaren (Gaztela, Aragoi, Portugal, Granada...) eta Europako gainerako kontinentearen arteko ate eta zubi gisa jardun zuten, frantziar eremuan harreman pribilegiatuak zituztelako (bereziki errege familiarekin eta Parisko gortearekin, baina baita Borgoina, Bretainia edo Berryko dukeekin ere...), bai eta Ingalaterrarekiko auzotasunagatik ere (Gaskonia eta Akitaniako lurraldeetan barrena) eta beste printzerri subirano batzuekiko, hala nola Bearneko bizkonderriarekiko; posizio horrek beste lurralde batzuekin harreman berriak irekitzeko aukera eman zion erregeari; esate baterako, Inperio Sakratuarekin eta Bizantziar Inperioarekin.



“NAFARROAKO ERREGE-ERREGINAK”
HITZALDI ZIKLOA

Fermín Miranda García
Sancho Garcés I, rey de Pamplona

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia
2025eko maiatzaren 21a, asteazkena

Luis Javier Fortún Pérez de Ciriza
Sancho VI el Sabio, rey de Navarra

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia
2025eko maiatzaren 28a, asteazkena

Raquel García Arancón
Teobaldo I, rey de Navarra

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia
2025eko ekainaren 4a, asteazkena

Íñigo Mugueta Moreno
Juana II, reina de Navarra

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia
2025eko ekainaren 11, asteazkena

Eloísa Ramírez Vaquero
Carlos III el Noble, rey de Navarra

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia
2025eko irailaren 17a, asteazkena

MIKROERAKUSKETAK

Châtelaïne. Mujer, naturaleza y patrimonio en el entorno de Carlos III. De la investigación a la creación artística

Marina Almagro

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia. 2025eko maiatza.
Ordutegia: egunero, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara

Fotografías antiguas del patrimonio carolino navarro

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia. 2025eko uztaila-abuztua.
Ordutegia: egunero, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara

PIEZAK ZAHARBERRITZEKO PROZESUA
EZAGUTZEKO ANTOLATUTAKO BISITA GIDATUAK

Pieza artistiko eta arkeologikoen zaharberritzea

Nafarroako Gobernuaren Arkeologia Biltegia. Cordobilla
Ekainak 13, 20 eta 27, ostiralak, 12:00etan.
Lekua erreserbatzeko 848 42 46 67 telefonora deitu beharko da goizeko ordutegian

Erdi Aroko dokumentuen zaharberritzea

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia. Zaharberritze-tailerra.
Ekainak 5, 12 eta 19, ostegunak, 12:00etan.
Lekua erreserbatzeko 848 42 46 67 telefonora deitu beharko da goizeko ordutegian

“KARLOS III.a. GOBERNU ONAREN ERREGEA” ERAKUSKETA

Komisariotza

Eloísa Ramírez Vaquero

Alicia Ancho Villanueva

Komisariotzaren laguntzailea

Roberto Ciganda Elizondo

2025eko irailaren 5etik 2026ko urtarrilaren 11ra

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia

Ordutegia: egunero, 10:00etatik 14:00etara eta
17:00etatik 20:00etara.

Doako bisita gidatuak. Larunbatetan, 12:00etan.

Audiogida erabilgarria.

Haurrentzako gida didaktikoa.

ERAKUSKETA-KATALOGOA

Egilea

Eloísa Ramírez Vaquero

Lankidetz

Alicia Ancho Villanueva, Roberto Ciganda Elizondo, Martina Brufani, Joan Domenge i Mesquida, Clara Fernández-Ladreda Aguadé, Mercedes Galán Lorda, Paula Grañeda Miñón, Susana Herreros Lopetegui, Véronique Lamazou-Duplan, Maite López de Guereño, Javier Martínez de Aguirre Aldaz, Carlos Martínez Álava, Fermín Miranda García, Íñigo Mugueta Moreno, María Narbona Cárceles, Merche Osés Urricelqui, Agurtzane Paz Moro, Mikel Ramos Aguirre, Félix Segura Urra eta Jesús Sesma Sesma.

Aurkezpena

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia
Irailak 19, ostirala, 12:00etan

JARDUEREN EGITARAUA

“KARLOS III.a. GOBERNU ONAREN ERREGEA” ERAKUSKETAREN HARIRA ANTOLATUTAKO HITZALDI-ZIKLOA

IRUÑA

NAFARROAKO ERREGE ARTXIBO NAGUSIA

Eloísa Ramírez Vaquero

Carlos III el Noble

Irailaren 17a, asteazkena, 19:00etan

Alicia Ancho Villanueva

Arte y objetos del tiempo de Carlos III.

Materiales, técnicas y restauración

Urriaren 1a, astezkena, 19:00etan

Clara Fernández-Ladreda Aguadé

El sepulcro de Carlos III y Leonor

Urriaren 29a, astezkena, 19:00etan

TUTERA

ALMIRANTEAREN ETXEA

Eloísa Ramírez Vaquero

Carlos III el Noble

Azaroaren 11, astearte, 19:00etan

TUTERAKO KATEDRALA

Alicia Ancho Villanueva

Visita guiada a la Capilla funeraria del canciller mosén Francés de Villaespesa e Isabel de Ujué

Azaroaren 5a, asteazkena, 18:00etan

Lekua erreserbatzeko 848 42 46 67 telefonora deitu beharko da goizeko ordutegian

LIZARRA

LIZARRAKO FRAY DIEGO KULTUR ETXEA

Fernando Serrano Larráyo

Alimentación y gastronomía en la Navarra del siglo XV: la mesa de Carlos III el Noble

Azaroaren 6a, osteguna, 19:00etan

SAN MIGEL PARROKIA

Carlos Martínez Álava

Visita guiada a la Capilla funeraria de Martín Pérez de Eulate y Toda Sánchez

Azaroaren 13a, asteazkena, 19:00etan

Lekua erreserbatzeko 848 42 46 67 telefonora deitu beharko da goizeko ordutegian

ZANGOZA

VALLESANTORO JAUREGIA KULTUR ETXEA

Eloísa Ramírez Vaquero

Carlos III el Noble

Urriaren 9a, osteguna, 19:00etan

Merche Osés Urricelqui

Majestad, ya está lista su hopalanda.

Vestirse en la corte de Carlos III (1387-1425)

Urriaren 16a, osteguna, 19:00etan

ERRIBERRI

ERREGE JAUREGIA

Javier Martínez de Aguirre

**Carlos III el Noble y su palacio de Olite:
intenciones, proyectos y circunstancias**

Irailaren 22a, astelehena, 18:00etan

Amaia Prat Aizpuru

Visita guiada al Palacio Real de Olite

Irailaren 22a, astelehena, 19:00etan

Merche Osés Urricelqui

Majestad, ya está lista su hopalanda.

Vestirse en la corte de Carlos III (1387-1425)

Urriaren 7a, asteartea, 19:00etan

JARDUEREN EGITARAUA

ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

Hitzaldia

***La Morería de Tudela y la maqbara de Torre Monreal.
Una aproximación desde la documenta
ción y la antropología a la comunidad mudéjar del
Reino de Navarra durante los Evreux***

Tutera, irailaren 25a, osteguna

Hitzaldia

Lizarrako gazteluak

Zehaztu gabeko data

LIZARRAKO ANTZINAKO MUSIKAREN ASTEA

Erdi Aroko musika-kontzertua

Lizarra, San Migel eliza

UDAZKEN ARTXIMUSIKALA

Kontzertua

La música del Reino. Guillaume de Machaut

Ensemble Uqbarnagh

Aurkezpena eta testuinguru historikoa

Mikel Zuza Viniegra

Interpretatzaileak

Julietta Viñas: kantua, Erdi Aroko biola eta perkusioak

Gloria Aleza: kantua, arku-bihuela, zarrabetea eta arrabita

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia
Azaroaren 26a, asteazkena, 19:00etan

Hitzaldia

María Narbona Cárcelos

La actividad musical en la corte de Carlos III el Noble

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia
Abenduaren 10a, asteazkena, 19:00etan



1 4 2 5 - 2 0 2 5

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGN

Archivo Real y General de Navarra
Nafarroako Errege Artxibo Nagusia

